

BERBAROTARRA

5. alea. 1995eko uda

gure gorabeherak


Durangoko udalak ikerketa bat egin du gazteen artean hainbat gauza aztertzeko. Ikerketa hori sakona da eta bizitzako hainbat arlo jorratu ditu, besteak beste, euskara eta euskararen inguruko hainbat iritzi; guk, jakitekoak direlakoan, hona ekarri ditugu.

Hauxe da Durangoko gazteek euskararen gainean daukaten iritzia:

“...Gazteen %44,8ak irakurtzen du *Eraz* (%89,9ak *Vecinos* eta %73,8ak *Crónicas*). Jakina, *Eraz*-ek, euskaraz egiten delako, euskaldunen artean dauka erakarpenik handiena, baina erdaldunen portzentia txiki batek ere irakurtzen duela dio...”

“...Populazio gaztearen %53a euskalduna da baina gure hizkuntzaren erabilera %30,9ra jaisten da etxean, %23,2ra lagunartean, %21,9ra ikasketetan eta lanean eta %21,7ra kalean...”

“...Euskaldun portzentaiarik handiena 22-25 urtekoen tartean dago. Kezkatzekoa da 15-17 urteko tartean eta 18-21eko tartean agertzen direla euskararik ez dakiten



edo oinarrizko ezagutza duten gazteen portzentaiarik altuenak...”

“...Durangon euskarak daukan bizi-indarrari buruzko gogoeta egiteko motibo ugari aurkituko dugu hizkuntza hau non eta zenbat erabiltzen den aztertu ezker: (...)

Euskaldunen %20-30ak ez du euskara erabiltzen bere harre-

man sozialetan. Familia da oraindik ere hizkuntzaren aterperik handiena. 15-17 urteko gazteak dira euskara gutxien egiten dutenak. Oso esanguratsua da hori...”

“...Euskararen ezagutza eta erabilera hainbestekoa ez bada ere, gazteek begirune handia diote euskarari: %57,7ak uste du **gure herriaren hizkuntza dela**; %42ak euskal kulturaren osagai nagusia dela; %2,8ak **etorkizunik gabeko hizkuntza dela** eta, azkenik, %2,8ak **indarrez ezarritako hizkuntza dela**...”

“...Erakutsi duten dinamismoagatik eta bazkide kopuruagatik, Durangoko elkartearen artean euskararen alde dihardutenak gailentzen dira: *Berbaro Elkartea* (352 bazkide) eta *AEK* (260 bazkide)...”

“...Hauexek dira Durangoko gazteen artean ospe handiena duten elkarte edo klubak: *Tabira Mendizale Taldea*, %39,2 > Berbaro, %27,0 > Tabirako, 15,2...”

“...Euskararen inguruan batzen den jendea (...) gaztea izaten da, ekimen handikoa eta konpromezu sozial handia duena...”

Kale neurketa

Goian irakurri duzunak gazteek euren buruaren gainean esaten dutena hartzen du kontuan. Baina, batzuetan, norberak norberen buruari buruz daukan iritzia eta gero hartzen duen jokabidea ez da bat etortzen eta komenigarria izaten da benetako jokabidearen berri edukitzea ere. Aurreko boletinen esan genizuen Berbaro ikerketa bat prestatzen ari zela “Durangon kalean erabiltzen

den euskararen erabilera” izenekoa. Zeregin horretan Alazne Loizate eta Berbaroko hainbat azpialde aritu dira.

Behin-behineko datuen arabera, alde nabarmena dago Durangon euskara dakitenen eta kalean euskara erabiltzen dutenen artean. Hau da, euskaraz dakigunok gero eta gehiago izan arren, kalean ez dugu horrenbeste erabiltzen.

Desberdintasun hori zergatik gertatzen den aztertzeko dago, hala ere, argi eta garbi eduki behar dugu batez ere gure esku dagoela alde hori murriztu eta geure jakituria kaleratzen hastea.

	erdaldunak	ia euskaldunak	euskaldunak
1986	%45	%17	%38
1991	%37	%24	%39

Kalean entzuten dena:

	1989	1995
euskaraz	%10	%12
erdaraz	%90	%88

BAGABILTZA BAGABILTZA

Beharbada ikusiko zenuten egunkarietan. Berbarok udal berriari aurrerapausu bat eskatu dio: durangar erdiak euskaldunak garela kontuan hartuta, **Euskara Zerbitzua** eta **Euskara Batzordea** sortzea.


Taberna —eta egunen batean txokoa izango dena hobetzeko— taberna ondoko lonja hartu dugu. Gainera, txokotik tabernarako eskaileretan atea ipini dute goian lasai egon ahal izateko.

tan, **Aitziber Muñoz** (akzesit bana eman zaie Eider Azula, Oihane Kortazar eta Leire Bereziartuari); **KOMIKIETAN**, nagusietan, **Ismael Iglesias** (Akzesita Imanol Garaizabalentzat), gazteetan, **Angel M. Gallo** (Akzesita Xabier Joseba Etxeitarentzat) eta, umeetan, **Imanol Alonso** eta **Xabier Hurtado** (eta 12 lagunen artean banatzeko 3 akzesit); **Bertsoetan**, nagusietan, **irabazlerik ez**, gazteetan, **Arkaitz Ugartetxea** eta, umeetan, **irabazlerik ez** (hiru akzesit: Amaia Egidazu, Eider Azula eta Irene Iza).

tarau horretan ez dira Berbarok egiten dituen ekintza guztiak agertzen boletina egiten dugun sasoian ez dugu jakiten eta. Beraz, zoli ibili karten bidez iragarriko baititugu hainbat ekintza. Esate baterako "7 Eskaleak" taldeak eta Xabier Muguruzak jo zuten tabernan eta hori ez zen egitarauan agertzen.



Unai Zuazua, asteburuetakokamareroa, beste taberna batera joan da eta Yugatz Duñabeitia sartu da bere lekuan.



Badakigu zeintzuk diren *Berbaroko Ipuin-Bertso-Komiki Lehiaketako* irabazleak: **IPUINETAN**, nagusietan **Josu Unzueta** (akzesit bat eman zaio Xabier Arrindari), gazteetan, **Nerea Vicente** eta, umeetan,

Beste orrian agertzen den egi-

ZER DA HAU?

Euskararen gaineko bertso batzuk egitea eskatu genien eta hara zer egin diguten:

Kyrie eta Gloria
Credo eta Sanctus,
hurrengoaren izena
dozu Benedictus;
mezarekin jarraituz,
dator gero Agnus
Jaungoikoa zurekin
Vobiscum Dominus

Izena adierazteko
nominatiboa,
salatzeko berriz da
akusatiboa;
zeozer emoteko
dozu datiboa,
gehien gustetan dana
da genitiboa

Inglesa ospa eta
aurrera latina!
rock and rollaren ordeztu
goizeko maitina;
txikle-hizkuntza hori
harroputz zikina,
hobeto Senecaren
retorika fina

Josu Unzueta
Xabier Arrinda

KARGU ALDAKETA

1995eko apirilaren 6an eginiko Batzar Nagusian honako kargu aldaketa hauek egin ziren

LEHEN	P. Pablo Arrinda	J. Luis Erzilla	Iñaki Maortua	Jon Aizpurua
ORAIN	Arantza Agirre	J. Luis Erzilla	J. Mari Arkarazo	Aitor Uriarte
	lehendakaria	lehendakariordea	diruzaina	idazkaria

FAMILIA, EUSKARAREN BABESLE

Euskal Herriko beste hiru herrirekin batera, Durango aukeratua izan da Hizkuntz Normalkuntzarako Famili Programaren saiakuntza pilotua martxan jartzeko eta **BERBARO** jo ta ke ari da zeregin horretan diharduen lan-taldean parte hartzen.

Hizkuntza gutxituen biziraupena bermatzeko, hizkuntza horren transmisioa familiaren bidez lortzea nahitaezkoa da. Familia da hizkuntza transmititzeko biderik nagusia eta, gainera, garrantzitsua, merkeena eta eraginkorra. Familiako hizkuntza sentimenduen eta norberak barneratzen duen mundu sinbolikoaren hizkuntza da. Bestalde, ez da ahaztu behar familian ikasi dutenak izaten direla hizkuntza gutxitua gehien ezagutu eta erabiltzen dutenak. **BERBARO**rekin batera, Udal Kontseiluko partaideak ari dira, **HABE**ko teknikari baten koordinaziopean. Proiektua garrantzitsua da eta lortu nahi den helburua (euskararen transmisioa familiaren bidez bermatzea) ezinbestekoa. Gerora honako esperientzia hau beste alor batzuetara (eskolara, umearen kaleko bizimodura...) ere zabaltzeko asmoa dago.

UDAKO EGITARAUA

UZTAILA

▼ Gazte taldekoen irteera.

ABUZTUA

▼ Oporrak.

IRAILA

▼ Bertso afaria. Irailak 8.

Bikote ospetsu bat. Ikastolan.

▼ Antzerkia.

▼ Mural Lehiaketa.

▼ Hitzaldia.

▼ Hurrengo boletina.
(Berbarotarra).

▼ Mendi irteera. Gazte Taldea.


URRIA

▼ Jaietako bertso saioa.

▼ Olerki errezitala.

URTE OSOAN

▼ Hamabostero, erakusketak tabernan.



Hauteskundeak eta euskara

Azken udal hauteskundeei begira, BERBAROk euskararen presentzia areagotzeko eskatu zien Durangoko alderdi politikoei.

Egin zitzaizen eskaera, laburbilduz, honakoa izan zen: 1.- hautagaien zerrendak egiteko orduan, Durangoko euskaldun-kopurua kontuan hartzea; beraz, zerrenda-buruaz gain, hautagaien %50 euskalduna izatea. 2.- Kanpainen egindako propagandaren %50 inguru euskaraz izatea. 3.- Alderdi bakoitzak prestatuturiko programan euskararekiko jarrera eta etorkizunera begira duen asmoa (euskara-zerbitzua...) argi adieraztea.

Harrera, denen aldetik oso

ona izan zen. Kontuan hartuko zutela agindu ziguten eta gustora esango genizueke denek hartu dituztela aintzat gure eskariak.

Baina ez da horrela izan, eta gauzak diren moduan esan behar dira: zehaztasunetan sartu barik, EAJ, HB eta EAK bete dituzte eskariak; PSOE-EEK aurrerapausu bat eman du eta propagandaren %30a euskaraz egin du; PPK eta EBK ezer gutxi egin dute euskaraz.

Badugu, beraz, zerekin poztu eta zertaz kezkatu. Asmatuko ote dugu hurrengoan eraginkorragoak izaten?

eskamak kentzen

Hona hemen behin baino gehiagotan entzuten diren loretxo bi:

1.- Erderaren eraginez edo, oraindik gertatu gabeko ekintza adierazteko -T(Z)EN erabiltzen dugu:

Joaten gara tabernara? edo Kantatzen dugu?

Adibide zuzenak honakoak dira: (ekintza gertatu gabe dagoenez, etorkizunean adierazi beharko dugu)

JoanGO (al) gara tabernara? edo KantatuKO (al) dugu?

2.- Bigarren lore honetan ere nabarmena da erderaren eragina:

Jan ahal dut mantekila? edo Ahal dut joan komunera?

Esaldiaren ordena aldatu egin behar da eta galdegaia aditz nagusiaren aurretik jarri. Gainera, honakoak adierazteko aditz potentzialak ditugu (dezaket, naiteke, "neike"...) :

Mantekila jan dezaket (ahal dut)? edo Komunera joan naiteke (ahal dut)

EUSKARA TALDEEN TOPAGUNEAK

1995eko urtarrilean Tolosako GALTZAUNDI taldeak Euskal Herriko euskara-taldeei bilera batera dei egin zien. Bilera horren ondorioz, *Euskara Elkartearen Topagunea* sortzea erabaki zen. Hau da, Euskal Herriko euskara-taldeak bilduko dituen elkarte edo topagunea.

Euskara-taldeen arteko egoera oso desberdina den arren, argi dago badirela guztiok ditugun premia jakin batzuk. Hala nola, baliabideak eta ahalmenak optimizatzea; baliabide ekonomikoak hobeto erabiltzeko, esperientziak trukatzeko edo ekintza eta iharduerak elkarrekin bideratzeko.

Beraz, topaguneak oinarritzko helburu batzuk bete nahi ditu:

- Euskara-taldeen arteko harremanak sakondu, zabaltu eta finkatzea.

- Taldeen lana errentagarriagoa izatea eta isolamendua gainditzea eta horretarako, kostu ekonomikoak murriztearren eta enargiarik ez sakabanatzearen, koordinatzea.

- Sortu berri diren elkarteetako laguntza eskaintzea.

- Jendearen beharrak astertu eta euskaraz asetzeko zerbitzuak ematea: komunikabideak, kultur zerbitzuak, sentsibilizazioa, gazteak...

- Aholkularitza eta prestakuntza (juridikoa, profesionala...) eskaintzea.

BERBAROk hasiera-hasieratik ekin dio proiektu aberasgarri honi eta nondik norakoak zehazten ari den lan-taldean ordezkaria du.

Ieup!


Nola doaz udako lehen egunak?

Gu hemen gabilta, udako ekintzak antolatzen. Aurten, pasa den urteko kanpamenduaren exitoa ikusirik, beste bat, hobe, prestatzea pentsatu dugu.

Oraingoan, gure abentura eta dibertsio gosea iparraldean asetzeko asmoa dugu; Zuberoa aldean hain zuzen. Bi kanpamendu antolatu ditugu, bata gaztetxoentzat, 7. eta 8. mailakoentzat; eta bestea, 17-18 urteko karrozentzat. Bereizketa honen arrazoi garrantzitusena kanpamenduetan datza: bata, gazteena, finkoa da; karrozena mugikorra.

Bi kanpamendu hauek egun berdinetan izango dira, uztailaren 14tik 25era. Bakoitza bere aldetik ibiliko da, baina lehen eta azken egunetan, bat egingo dute.

GuEZaXN Bα!ko gazteoz aparte, euskaraz dakien —edo euskaraz egin eta ondo baino hobeto pasatu nahi duen— edozein etor daiteke.



Beno, beraz, interesaturik egon daitezkeen guztiek Berbarora deitzea besterik ez dute.

12 egun horietan ez da lasai egoteko astirik izango. Gazteon artean milaka eta milaka ekintza intentso eta erakargarri prestatu ditugu.


Hauen artean aipatzeakoak dira kanoi jaitsiera, eskalada, orienting-a, bertsotriki afaria, antzerkia, musika kontzertua, olinpiadak, gau ekintzak, gaubelak, ur ekintzak, tailerrak, eta, eta, eta...

Baina udan energia guztiak agortu baino lehen, uda ostekoak prestatzen hasiak gara. Gure udazkeneko helburuak: bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla... argibide gehiago hurrengo boletinean.

Gure milaka eta milaka ekintzak aurrera eramateko, dagoeneko diru iturriak bilatzen hasiak gara. Guk eskuz egindako niki zoragarriak, koilarrak, pultserak, gure logotipoaz plasmaturiko nikiak... egin ditugu, udarako egokiak denak ere.

umeentzako kamiseta polit-politak atera ditu Berbarok

deitu Berbarora edo eskatu tabernan



Bacilochocoaren eboluzioa
"Bertso-afaria" izeneko prozesuan

Ori honetaz duka Zuzendaritza Buztendaren baimenak, baina Zuzendaritza Buztendak ere ez duka baimen horren orritik eta gainera baimenak Zuzendaritza Buztendaren orritik ez baduka, akats tipografikoak salbu, noiz antolatuko du Berbarok aklatore bat? Dena dela, gu ez gara jaungo.

BARBAROEN botelina
Guzt. alea 1995eko 20 kainak